

TXEKEAK BETETZEKO IDAZKERA EREDU BATUA

*Andres Urrutia,
Jagon sailburua*

Euskaltzaindiko *Jagon* Saileko Corpus Batzordeak, txekeak euskaraz betetzeko orduan zegoen nahaspila kaltegarria ikusirik, erabaki zuen euroari egokitutako «Txekeak betetzeko idazkera-eredu batua» prestatzea, herritarren esku jarri behar denerako. Horretarako, kutxa eta bankuetako ereduak bildu eta aztertu ditu, eta eredu berria landu, hizkuntza-arauak eta legezotasunari dagozkionak betez.


Horrelaxe sortua da, «Txekeak betetzeko idazkera-eredu batua» izeneko dokumentua. Dokumentu hori Interneten aurkitu nahi bada, joan bedi Euskaltzaindiaren webgunera (www.euskaltzaindia.net), sartu JAGONET-eko datu-basean, idatzi «Txeke» eta sakatu «Bilatu».

Bilbon, 2003ko urriaren 17an.

TXEKEAK BETETZEKO IDAZKERA-EREDU BATUA

Segurtasun-neurriak

Txeke izenduna egin, ahal bada.



Babestu zenbakiak
marka eginez
diru kopuruaren
alde bietan.

Kopuru LETRAZ
idatzi, *ZENBAT EURO*
dioen lerroan hasita.
Gero, marra bat
egin, hutsunea balio
gabe uzteko.

Zeharkako marra bi
egin eta borruan
hau idatzi:
KONTUAN SARTU.
Horrela, inork ezin
izango du eskudirutan
kobratu txekea.

Txekea eskuz idaztean, **KONTUZ** ibili: ikusezin
bihur daiteke tinta, eta idatzitakoo desagertu.

Txekeak galduz gero, berehala eman
galerraren berri **BANKUTXA**ri.

Zenbakien idazkera

0	zero	15	hamabost	90	laurogeita hamar
1	bat	16	hamasei	100	ehun
2	bi	17	hamazazpi	200	berrehun
3	hiru	18	hemezortzi	300	hirurehun
4	lau	19	hemeretzi	400	laurehun
5	bost	20	hogei	500	bostehun
6	sei	21	hogei eta bat	600	seiehun
7	zazpi	22	hogei eta bi	700	zazpiehun
8	zortzi	23	hogei eta hiru	800	zortziehun
9	bederatzi	30	hogei eta hamar	900	bederatziehun
10	hamar	40	berrogei	1.000	mila
11	hamaika	50	berrogeita hamar	10.000	hamar mila
12	hamabi	60	hirurogei	1.000.000	milioi bat
13	hamahiru	70	hirurogeita hamar	10.000.000	hamar milioi
14	hamalau	80	laurogei		

Diru kopuruak idazteko adibideak

27	↑	hogei eta zazpi euro
27.35	↑	hogei eta zazpi euro eta hogei eta hamabost zentimo
312	↑	hirurehun eta hamabi euro
312,46	↑	hirurehun eta hamabi euro eta berrogeita sei zentimo
4.911	↑	lau mila bederatziehun eta hamaika euro
4.911,34	↑	lau mila bederatziehun eta hamaika euro eta hogei eta hamalau zentimo
3.500.000	↑	hiru milioi eta bostehun mila euro
3.582.000	↑	hiru milioi bostehun eta laurogeita bi mila euro
3.582.670	↑	hiru milioi, bostehun eta laurogeita bi mila, seiehun eta hirurogeita hamar euro

Hilabeteen izenak

urtarrila	uztaila
otsaila	abuztua
martxoa	iraila
apirila	urria
maiatza	azaroa
ekaina	abendua

Laburdurak

Kontu korrontea: k.k.
Zenbakia: zk.
Kontu korronte zenbakia: k.k. zk.